

## HISTORIAREN FILOSOFIA 2

Platonek Heraklitoren eragin handiegia zuen, eta errealitate materiala ikasi zuen zela igarotze etengabe bat nondik ezinezkoa zen zientziarik egin, den dena mutazio bezala definitua izan baitzitekeen. Eta mutazio etengabe horrekin ez zuen ikasten modurik mundu materiala definitzeko, ezta mundu horretako objektuak ere, zeintzuetatik bere dialogoetan sekula ez den iristen definizio **universal**etara, ikertzen badu ere objektu partikularretatik, hau da, **induktivoki**. Mundu materialean nonbait han objektu horiek ez ziren libratzen igarotze hartatik eta asmatu behar izan zuen objektu inmutableen mundu bat, formen mundua, non jada bada posible definizio **universal**a objektu partikularren. Eta egia da, indukzioa perfektua da mundua matematiko parmenideoa delarik, eta **universal** bihurtzen ahal da, hau da, definizio **universal**a egitea badago hor, eta horrekin batera zientzia egiteko posibilitatea, Aristotelesekin konprenitzen zuen moduan (kausa formala), irekita dago, naiz eta zientzia hura ez zen izango materiala, eta bai formala (ideala, idea grekeraz forma baita). Ostean, hau da, mundu material hutsean, ezinezkoa da hori dirudenez, eta hortik bere Akademia berriaren azken filosofoen **escepticismo**a. Zeina bat datorren filosofo nagusi hauen azken ondorioekin, materiazkoa inintzlijible egiten baitzitzaien denei.

Ni, nire aldetik, kosmos materiala ilunpe horietatik jasotzearen aldekoa naiz. Ez da egia **escepticismo** etsiak ondorioztatua.

Zeren materiazkoa inintelijiblea baldin bada orduan ibili gaitzen begiak tapatuta... baina absurdoan erreduzitzen da teoria hori, komentzimendu hori, eta denok dakigu hobe dela, estropuzurik ez egiteko begiak ondo zabalik ibiltzea. Beraz, materiazkoa, mundu materiala, bada intelijiblea.

Piska bat aristotelismotik abiatuz (haren lunatismoa alde bat lagaz jakina, astronomia, kausa formalaren auzia...) afirma daiteke mundu material formal batean bizi garela ezinbestez. Eta materia forma ezberdinetan ageri zaigu, igarotzean, bai, baina formak dira gure begiak ikusten dituztenak, eta forma horiek ez dira inmutableak eta bai materialak, herakliteoak. Baina igarokorrak badira ere igarotze hori, normalean, ez da isuri etengabe inintelijible batean gertatzen. Astia badugu forma material horiek definitzeko, eta izendatzeko, Hasierako liburuan esaten den moduan: euren genero eta espezetan sailkatuz.

Ez da beraz derrigorrezkoa zientzia soilik formala izatea, zientzia material formala izatea daiteke irtenbidea. Eta definizioetan, zientzia material formala aurrera badoa, aurreratu daiteke subdefinizioak eta hola eginez, arbola batean adartzeak mugagabe zabaltzen diren moduan, infinituraino ere. Eta hor jada badituguke hiztegi bat gero eta konpletuagoa, ugariagoa, infinituan osatzen dena, mundu materialaren estudioan deskripzioak egiteko, gero eta zehatzagoak. Eta deskripzio material formala da zientzia historiakoaren funtsa, eta baita zientzia ororen oinarria ere. Eta nola formalizatzea lortu dugun, jada posible da operatzea formulekin, zeintzuek analisis logikorik zehatzenak pasatu behar dituzten argumentazio egiazkoak bezala onartuak izan daitezen. Eta modu honetan herakliteismoaren egiak ez du tratatzen aurrerapena zientzia materialean, zeinean baden posible zientzia egitea. Infinituan ikasten badugu ere zientzia horren azken helburua, zeina litzatekeen kosmos materialaren ezagutza **universal**a. Baina **escepticismo**a gainditua dugu, eta zientzia materialista formala egiten ahal dugu, jakinik beti definizioak hazten ahal direla arbola baten

adarrak bezala. Eta horregatik beti da posible zientzia hoberik, izanik helburua lortuezina mundu material honetan.

Eta deskripzio sinpleak ere balio du. Eta hori izango litzateke historiaren zientzia molde sinplean kontatua. Eta herakliteismoak planteatzen zuen problema hura nonbait han beste modu batean, beste perspektiba batetik, konpondu egin dugu, eta materialista formalak gara. Eta zientzia materiala egiten dugu.

Roman Garmendia